

## **Euskadiko hamar gaztetik zortzi pozik daude harreman sentimental eta/edo sexualekin**

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako Sailaren Gazteriaren Euskal Behatokiak 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko 1.500 gazteri galdetu die beren bizitzako hainbat alderdiri ematen dieten garrantziaz, bai eta alderdi horiekiko sentitzen duten gogobetetzeaz ere.

Harreman sentimentalak edota sexualak dira horietako bat. 0tik 10era bitarteko eskala batean, Euskadiko gazteek 8 puntuko garrantzia ematen diete, batez beste, eta 7,8ko gogobetetzea.


Izan ere, gazteen % 1,9rentzat baino ez dute garrantzi baxua harreman sentimentalek eta/edo sexualek, hau da, 10etik 3 eman diete gehienez. % 11,3rentzat garrantzi ertaina dute (10etik 4 eta 6 arteko puntuazioak), eta gehienek, inkesta egin duten gazteen % 86,8k uste dute garrantzi handia dutela (7 eta 10 arteko puntuazioak).

Harreman sentimental eta/edo sexualekin asebetetze txikia duten gazteen ehunekoak 4,3koa da, % 16,5ek gogobetetasun ertaina dute eta % 79,3k asebetetze handia, 10etik 7tik gorako puntuazioekin.

Emakume gazteen artean, asebetetze handia dutenen ehunekoak handiagoa da gizonen artean baino; emakumeen % 82,2k 7 puntutik gora eman diote, eta gizonen artean, aldiz, % 76,6k.


Asebetetzeak ere gora egiten du adinarekin. Bi aldagaiak, adina eta sexua, gurutzatzen baditugu, emakumeak dira beren harremanak gehien baloratzen dutenak.

**Beren harreman sentimental eta/edo sexualekiko gogobetetasun handia duten gazteen portzentajea, adin-taldean eta sexuaren arabera (2019)**



Matrize batean garrantziaren eta gogobetetzearen ehunekoak alderatuz gero, ikusten da gazte gehienek (% 74,2) garrantzi handia ematen dietela beren harremanei eta egokitzen dituztela. Bolumenari dagokionez, bigarren ehunekoa da garrantzitsutzat jotzen dituztenena, nahiz eta haien asebetetzea baxua edo ertaina izan (% 12,6). Gazteen % 8,1ek ez die garrantzi handirik ematen harreman sentimentalei eta/edo sexualei, eta gogobetetze baxua edo ertaina erakusten dute. Azkenik, % 5,0k garrantzi ertaina edo txikia ematen diete, baina gogobetetze handia dute.

**Euskal gazteen harreman sentimental eta/edo sexualekiko garrantziaren eta gogobetetasunaren matrizea, 2019**



Bestalde, azken urteetako bilakaera aztertuz gero, ikusten da garrantziari zein gogobetetzeari emandako puntuazioak oso egonkor mantentzen direla. Hurrengo grafikoan ere ikusten da garrantzia asebetetzea baino pixka bat handiagoa dela beti.

**Euskal gazteek harreman sentimentalei ematen dieten garrantziaren eta horiekiko gogobetetasunaren bilakaera**

